



## DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2017

### INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA

1. Diru-laguntza batzuk ematea informazio geografikoa hobetzeko, udal-mapak egiteko eta gero mapa horiek jendartean zabaltzeko .....	2
2. 2017ko ekitaldirako udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia integratzeko diru-laguntzak .....	4
3. Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak, paisaiaren ekintza-planak prestatzeko .....	5
4. Eskolako Agenda 21 programak garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko diru-laguntzak .....	6
5. Ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak .....	8
6. Etxebizitzarako prestazio ekonomikoa (EPO) .....	10
7. Alokairuko etxebizitzaren parkea sustatzea eta birgaitzeko eta hiri-berroneratzeko politika berria ezartzea.....	11
8. Renove Programa: Etxebizitza eta eraikinen birgaitze eraginkorra, Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikien esku hartzeko proiektuak egiteko eta horietatik eratorritako lanak egiteko .....	20
9. Udalentsako, toki-erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak, hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obra egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko.....	21
10. Birgaitze integratuko areetan edo bizitegi area degradatuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko diru-laguntzak.....	23
11. 2017 ekitaldirako diru-laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzeko, eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa sustatzeko, jasangarritasuna indartzeko eta berrikuntzari laguntzeko proiektuak bultzatzeko (2017ko Eraikal Programa) .....	26
12. Enpresentzako 2017ko diru-laguntzak, ingurumenera zuzendutako inbertsioetarako ..	28
13. Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten Udalei, Mankomunitateei, beste Toki-erakunde batzuei, Toki Erakunde Autonomoei, Tokiko Garapen Agentziei eta Tokiko Merkataritza-sozietateei eman beharreko diru-laguntzak .....	31



#### 1.- Izenburua

**Diru-laguntza batzuk ematea informazio geografikoa hobetzeko, udal-mapak egiteko eta gero mapa horiek jendarterean zabaltzeko**

#### 2.- Araua

Agindua, 2017ko ekainaren 7koa, Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen baitira eta horiek emateko deialdia egiten baita EAEko udaletarako, informazio geografikoa hobetu eta udal mapak egin eta zabal ditzaten.

#### 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko udalen artean dirulaguntza bat banatuko dugu, bakoitzak bere udal-mugartearen mapa digital bat egiteko gastuak ordaintzen laguntzeko (paperean inprimaturik ere egin dezakete). Mapa topografikoetan jaso ohi diren elementu guztiak bildu, berraztertu eta kokatu beharko dituzte, eta, gainera, gutxienez, toponimia, kale-izendegia, zerbitzuak, instalakuntzak eta interes publikoko hiri-elementuak ere jaso beharko dituzte.

#### 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko aurrekontuen memorian aurreikuspena zen dirulaguntza 25 udalen artean banatzea. Azkenean, 28 eskabide aurkeztu zitzaizkigun; haietako batek atzera egin zuen; 3ri ezetz erantzun genien, ez zituztelako deialdiko baldintzak betetzen; eta gainerako 24en artean banatu genuen dirulaguntza (3 Arabakoak ziren, 13 Bizkaikoak eta 8 Gipuzkoakoak).

Guztira, 200.000 € banatu genituen, hau da, dirulaguntzarako aurrekontuaren % 100. Eta, udalak banan bana hartuta, jarrita zeuden irizpideak betez, bakoitzari, azkenean, formula aplikatu ondoren zegokion kopuru osoaren % 90 eman genion, bakoitzari bere heinean. Oraingo deialdi honetan, 17 udalek mapa paperean inprimatzea erabaki zuten.

Hortaz, aurrekontuen memorian egin genituen kopuru-aurreikuspenak ia erabat bete dira.

Lanen erabilerari eta gizarte-eraginarri dagokionez, berriz, gogora dezagun zein garrantzitsua den, udaletarako eta jendarterako, herriko toponimia txukun jasota uztea eta denon eskura edukitzea, udalari buruzko informazioa zuzenduta eta eguneratuta edukitzea, informazio hori mapa digitaletan geoerreferentziaturik edukitzea, eta zuzen azalduta uztea kale-izendegia, udal-zerbitzuak, interes publiko zerbitzuak, bideak, bazter interesgarriak eta, orokorrean, kartografia.

Aginduan eskatzen genituen banagarriei esker, udalari eta herritarrei errazagoa izango zaie jasotako informazio digitala baliatzea. Informazio-iturri dira, gainera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarako, toponimia osatzeko; eta EUSTATERako, kale- eta atari-izendegien datu-



base bateraturako. Erabilgarria da, oso, baita Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzarako ere, kartografia ofiziala mantentzeko.

Datu horiek, gainera -hala dakar aginduan-, administrazio eskari-egileen orrialde ofizialetan argitaratu behar dira, herritarrei zerbitzu hori eskaintzeko eta informazio horren berri bazter guztietan zabaltzeko.



#### 1.- Izenburua

**2017ko ekitaldirako udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia integratzeko diru-laguntzak**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2017ko irailaren 6koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena, 2017ko ekitaldirako, udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia integratzeko.

#### 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen helburua da diru-laguntzak emateko arauak ezartzea eta deialdia egitea, 2017ko ekitaldirako, udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia integratzeko.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeko 3.4 artikuluan xedaturik dagoenez (4/2005 Legea, otsailaren 18koa), euskal botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

#### 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lehen deialdi honetan, guztira, 24 udalek aurkeztu dute eskabidea (2, Arabakoak dira; 17, Bizkaikoak; eta 5, Gipuzkoakoak). Haietako 2k atzera egin dute, 5i ezetz erantzun diegu ezin zitekeelako eskatzen zutena diruz lagundu, eta bazen 1 gutxieneko 5 puntuetara iristen ez zena. 16 udali eman diegu dirulaguntza (15 Bizkaikoak eta 1 Gipuzkoakoa).

Guztira, 130.874,27 euro banatu ditugu dirulaguntzetan, aurrekontuan eskura genuenaren % 65 (200.000 €).

Egia da ez dela diru guztia baliatu, baina, iritsi zaizkigun kontsultak aintzat hartuta, ez da interesik falta.



## 1.- Izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak, paisaiaren ekintza-planak prestatzeko**

## 2.- Araua

- Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretua.
- AGINDUA, 2017ko maiatzaren 31koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira paisaiaren ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak emateko deialdia.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da Paisaiarako Ekintza Planak prestatzeko oinarri arautzaileak ezartzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak emateko deialdia iragartzea.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Jarraian, lortutako emaitzei dagokienez, programan aurreikusitako adierazleak eta magnitudeak jasotzen dira:

<i>Adierazlea</i>	<i>Magnitudea</i>	<i>Lortutako emaitzak</i>
Aurkeztutako eskaerak	34	11
Emandako eskaerak	12	11
Emandako diru-laguntzek zenbat biztanlerengan izan duten eragina	94.200 biztanle	137.675 biztanle
Diruz lagundutako planak exekutatzeko aurrekontua	25.000,00 €/Plana	27.925,45 €/Plana, batez beste



## 1.- Izenburua

**Eskolako Agenda 21 programak garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko diru-laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2017ko maiatzaren 24koa, Hezkuntzako sailburuarena eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, eta Etxebizitzako sailburuarena, Eskolako Agenda 21 programa garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko diru-laguntzak arautzen dituena (2017-2018 ikasturtea).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Ingurumen, Lurralde Plangintza, eta Etxebizitza Sailak ezinbestekotzat jotzen du erakundeei diruz laguntzea, ikastetxeetan jasangarritasunerako hezkuntzako berariazko proiektuak jartzeko martxan; izan ere, proiektu horiek, batetik, ikastetxeko hezkuntza- eta curriculum-proiektuetan nahiz geletako programazioan ikuspegi hori sendotuko dute, eta, bestetik, ikasleak edo hezkuntza-komunitateak garapen jasangarrian konpromisoa hartzeko gaituko dituzten kontzientzia, gaitasuna, ezagupena eta balioak garatzen lagunduko dute.

Eskolako Agenda 21 programa ikastetxearen kalitaterako eta jasangarritasunerako hezkuntza-programa bat da. Hezkuntza-komunitatearen partaidetzan dago oinarrituta, ikasleei aparteko protagonismoa emanez eta udalerriko garapen jasangarriari lagunduz. Gainera, Eskolako Agenda 21ek proposatzen duen hezkuntza-praktikak ikasleari lagunduko dio, batetik, inguruan dituen ingurumen-arazoak ezagutzen eta horietaz jabetzen, eta, bestetik, modu arduratsuan gizarte justuago eta ekologikoki jasangarriago baten alde egiten.

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko zein itunpeko pribatu guztiek parte hartu ahal izango dute deialdian, baldin eta Eskolako Agenda 21 programa ezarrita badago ikastetxeak kokatzen diren udalerrietan.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Eskola Agenda 21en 2017ko deialdian emandako diru-laguntzen eta esleitutako proiektuen laburpena honakoa izan da:

<u>LH</u>	<u>Proiektuak</u>	<u>Zenbatekoa</u>
Araba	45	64.102,75€
Bizkaia	230	344.165,51€
Gipuzkoa	165	231.731,74€
Guztira	440	640.000 €



2017/2018 ekitaldian, aurreko ikasturtean esleitutako ikastetxeen kopuru txikixeagoa izan dela ikus dezakegu; hala ere, aurten Eskola Agenda 21en parte hartzen duten EAEko derrigorrezko hezkuntza ez unibertsitario ikastetxeen artean %63 izaten jarraitzen dute.

230.000 ikaslek eta 790 irakaslek Eskola Agenda 21 programan parte hartzen dute, eta horretaz gain irakaslegoa ez den pertsonala eta udal teknikariek ere hartu dute parte.

Nahiz eta ikastetxeak oztopo ugari izan proiektuak koordinatzen duten irakaslegoaren denbora falta dela eta, eta aurrekontuan aurreko ekitaldiko partidaren zenbatekoa handiagoa izan ikastetxeentzako diru-laguntzentzat, Eskola Agenda 21 programan parte hartu duten aurreko urteko ikastetxe kopuru gutxiago baina ikasle gehiago izateak adierazle ona dela iruditzen zaigu.

“Eskola Jasangarria” titulua lortu duten ikastetxeen zenbatekoari buruz, 2017-2018 ikasturtean 98 ikastetxek daukate titulu hori EAEn. Beraz, 100 ikastetxetara iristeko helburua ez dugu lortu aurten. Honen inguruan ebaluazio sistema berri batean lan egiten jarraitu da, auditoretzak era eraginkorrago batean egin ahal izateko eta era horretan, ikastetxeak Eskola Jasangarrien Sarera sartze errezago bat izan dezaten. Nabarmendu beharra dago aurtene gindako 30 ebaluazioek “Ikastetxe Jasangarria” titulua lortu dutela.



## 1.- Izenburua

**Ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2017ko irailaren 26koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, eta Etxebizitzako sailburuarena, ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazte-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta laguntzon deialdia egiten duena.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

2002ko ekainaren 4an Gobernuaren Kontseiluak onartutako Garapen Jasangarriko EAeko ingurumen Estrategian (2002-2020) adierazten da ingurumen-politiken arloan herritarren eta eragile sozialen lankidetzak aktiboa beharrezko baldintza dela jasangarritasunean aurrera egiteko.

Ildo berean, aipatutako EAeko Estrategia horren arabera, gobernu kanpoko erakunde, elkarte ekologista, kontsumitzaileen elkarte eta beste erakunde batzuen partaidetza aktiboa ere funtsezkoa izango da, batetik, ardura eta interes kolektiboen gaineko sentsibilizazioa eta zabalkundea egiteko, eta, bestetik, pertsona oro motibatu eta inplikatzeko.

Ingurumen-boluntariotza da herritarrek parte hartzeko era libre, altruista eta zuzena. Era berean, honako emaitza hauek sortzen ditu: ingurunea hobetzea; eta ingurumena hobetu eta kontserbatzeko motibazioari eta inplikazioari dagokienez eraldaketa pertsonal eta sozial sakona eta iraunkorra.

Helburu horiek guztiak betetzeko asmoz, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak diru-laguntza hauen lerroa sustatzen du.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Honako hau da 2017ko deialdian emandako diru-laguntzen eta diruz lagundutako proiektuen laburpena:

	Proiektuak	Zenbatekoa
Araba	2	17.089,53 €
Bizkaia	9	79.415,81 €
Gipuzkoa	2	22.895,62 €

Eskaera kopurua: 17

Diruz lagundutako proiektu kopurua: 13





Diru-laguntzaren zenbatekoa: 120.000 €  
Banatutako zenbatekoa: 119,400,96 €

Jarduera motak:

- Ingurune naturalak balioestea: 4 proiektu.
- Basoberritzea eta basoak lehengoritzea: 3 proiektu.
- Errolda eta zundaketak: proiektu 1
- Espezie inbaditzaileen jarraipena: proiektu 1
- Bertako haziak berreskuratu/kontserbatzea: proiektu 1
- EAEko kostaldeko hondakinak garbitzea: 3 proiektu.

Parte-hartzaileen kopurua: 1.700

Boluntarioak: 253

(\*) aldi baterako datuak dira, justifikatzeko epea ez baita amaitu.



## 1.- Izenburua

**Etxebizitzarako prestazio ekonomikoa (EPO)**

## 2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Etxebizitzaren 3/2015 Legeak etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aitortzen du, etxebizitza babestua edo bizitoki babestua alokatzeko aukera emanda, baita etxebizitza librea ere, baldin halakorik eskueran badago bitartekaritza-programaren baten ondorioz edo beste arrazoiren batengatik.

Halaber, etxebizitza edo bizitokirik ezean, eta subsidiarioki, prestazio ekonomikoen sistema bat ezarrita bete ahal izango da eskubidea.

Eskatzaileek etxebizitza edo bizitokia eskuratzeko aukera dutela bermatu nahi da, alokairu bidez edo, halakorik ezean, prestazio ekonomiko baten bitartez.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017 ekitaldian, etxebizitza eskubide subjektiboaren 3.184 eskaera egin ziren. Etxebizitzaren 636 esleipen ebatzi ziren.

Etxebizitzarako prestazio ekonomikoari dagokionez, 2017an 2 milioi euroko zuzkidura bideratu zitzaion hasiera batean.

Prestazioa 152 eskatzaileari ematea ebatzi zen; guztira, 203.750 euro.



## 1.- Izenburua

**Alokairuko etxebizitzaren parkea sustatzea eta birgaitzeko eta hiri-berroneratzeko politika berria ezartzea**

## 2.- Araua

- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena. (2015eko ekainaren 26ko EHAA, 119. zk.)

***Babes ofizialeko etxebizitzaren araubidea:***

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2011ko irailaren 14koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskatu beharreko urteko diru-sarrerara haztatuen mugak aldatzeko dena. (2011ko irailaren 30eko EHAA, 187. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: «2012ko urriaren 15eko Agindua, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa». (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzak erosketa-aukerarekin alokatzeari buruzkoa. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

***Babes ofizialeko etxeen gehieneko prezioak:***

- AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa (2010eko azaroaren 18ko EHAA, 222. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: «2012ko urriaren



15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa». (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

***Babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza libre erabilia erosteko finantza-neurriak:***

- AGINDUA, 2010eko urriaren 6koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzak erosteko finantza-neurriei buruzkoa. (2010eko urriaren 21eko EHAA, 203. zk.).
- 146/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzoruaaren arloan. (2015eko abuztuaren 4ko EHAA, 146. zk.).

***Alokairua sustatzea:***

- AGINDUA, 2008ko azaroaren 7koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzkoa. (2008ko azaroaren 19ko EHAA, 222. zk.).
- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzoruaaren arloan. (2011ko abenduaren 30eko EHAA, 247. zk.).

***Bizigune Etxebizitza Hutsen Programa:***

- 100/2004 DEKRETUA, 2004ko ekainaren 1ekoa, honako dekretu hau aldatzen duena: «Etxebizitza Hutsaren Programa» sustatu eta bultzatzen duena, programa horren araubide juridikoa ezartzen duena eta programa kudeatzeko ardura «Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA» (VISESA) sozietate publikoari ematen diona. (2004ko ekainaren 11ko EHAA, 110. zk.).
- 61/2009 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, honako dekretu hau hirugarrenez aldatzen duena: 316/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, Etxebizitza Hutsaren Programa sustatu eta bultzatzen duena, programa horren araubide juridikoa ezartzen duena eta programa kudeatzeko ardura «Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa SA» sozietateari ematen diona (2009ko martxoaren 26ko EHAA, 59. zk.).
- 146/2015 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzoruaaren arloan. (2015eko abuztuaren 4ko EHAA, 146. zk.).
- AGINDUA, 2004ko azaroaren 26koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, «Etxebizitza Hutsaren Programa»ren baldintzei eta esleipen prozedurari buruzko agindua aldatzekoa. (2004ko abenduaren 16ko EHAA, 239. zk.).
- AGINDUA, 2009ko azaroaren 4koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena,



«Etxebizitza Hutsaren Programa»ren lagapen-baldintzei eta esleipen prozedurari buruzko agindua aldatzen duena. (2009ko azaroaren 23ko EHAA, 225. zk.).

- 466/2013 DEKRETUA, 2013ko abenduaren 23koa, «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duena. (2013ko abenduaren 30eko EHAA, 247. zk.).

***Etxebizitza birgaitzea:***

- AGINDUA, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzkoa. (2007ko urtarrilaren 25eko EHAA, 18. zk.).
- AGINDUA, 2011ko azaroaren 23koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko agindua aldatzeko dena. (2011ko azaroaren 29ko EHAA, 226. zk.).
- 317/2002 DEKRETUA, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketara babestuei buruzkoa. (2002ko abenduaren 31ko EHAA, 249. zk.).
- Ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 DEKRETUAREN akatsak zuzentzea. (2003ko apirilaren 7ko EHAA, 69. zk.).
- AGINDUA, 2012ko uztailaren 18koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko REVIVE (Rehabilitación de Viviendas y Edificios) laguntza-programa arautzen duena), Euskal Autonomia Erkidegoko eraikin-ondarean esku hartzeko proiektuak lantzeko eta horiek sorrarazitako lanak gauzatzeko. (2012ko uztailaren 27ko EHAA, 146. zk.).
- 241/2012 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duena. (2012ko abenduaren 14ko EHAA, 241. zk.).
- AGINDUA, 2013ko uztailaren 31koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze eraginkorrerako laguntza-programaren deialdia eta arauak egiten dituen (RENOVE programa), Euskal Autonomia Erkidegoan eraikita dagoen ondarean esku hartzeko proiektuak egin eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko. (2013ko abuztuaren 20ko EHAA, 157. zk.).
- AGINDUA, 2014ko azaroaren 26koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko agindua bigarren aldiz aldatzen duena. (2014ko abenduaren 1ko EHAA, 229. zk.).
- 80/2014 DEKRETUA, maiatzaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen dekretua aldatzen duena (2014ko maiatzaren 30eko EHAA, 101. zk.).

***Finantza-erakundeekiko lankidetzaren hitzarmena:***

- Kreditu-erakundeekiko 2011. urterako finantza-lankidetzarako hitzarmena, etxebizitza



eta lurzoruaren arloko jarduketa babesgarriari buruzkoa.

- 146/2015 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, kreditu-erakundearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan. Izapidetan (2015ko abuztuaren 4ko EHAA, 146. zk.).

***Babes ofizialeko etxebizitzetara bideratutako lurzoru-ondare publikoak osatzeko lurzoru kostu bidez eskuratzeari dagozkion finantza-neurriak:***

- AGINDUA, 2010eko otsailaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, berehala eraikitzeko den lurzoruaren urbanizazioari aplikatzeko finantza-neurriari buruzkoa, babes publikoko etxebizitzak lehentasunez sustatzeko. (2010ko otsailaren 26ko EHAA, 39. zk.).

***ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programa.***

- 43/2012 DEKRETUA, martxoaren 27koa, merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako ASAP programa (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) sortzeko dena. (2012ko martxoaren 30eko EHAA, 66. zk.).  
180/2014 DEKRETUA, irailaren 23koa, merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programa sortzeko dekretua (martxoaren 27ko 43/2012 Dekretua) aldatzeko dena. (2014ko irailaren 30eko EHAA, 185. zk.).

### 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Etxebizitza babesteko sistema ofiziala, diru-laguntzen modalitatekoa, etxebizitzak sustatzeko, erosteko eta birgaitzeko, etxebizitza eta lurzoru arloan araututako jarduketa babesgarrien eremuan.

Sistema honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten kreditu-erakundeek maileguak ematen dituzte (Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta kreditu-erakundearen arteko finantza-hitzarmenaren eremuan), eta zuzeneko diru-laguntzen sistema eta maileguen interes-puntuko sorospenen sistema artikulatzen da, araudiz ezarritako babes-kasu zehatzetan eta tasatuetan.

Sorospenen kasuan, jarduera babestuak etxebizitza babestuentzako lurzoria erosteko eta urbanizatzeko eta alokairuko etxebizitzak sustatzeko izaten dira bakar-bakarrik.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen kasuan, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko eta etxebizitza libre erabiliak erosteko ere izaten dira, aurreko bi helburuetarako ez ezik (lurzoria eta alokairua).



Diru-laguntzei dagokienez, jarduera-tipologiaren arabera ezartzen dira, eta diskriminazio mailakatuko sistema baten bidez, onuradunen errenta-mailaren eta lurralde-intentsitate erlatiboaren arabera.

Gainera, Bizigune programa kudeatzen da, etxebizitza hutsak mobilizatzeko, baita ASAP programa (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) ere, merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzakoa.

#### 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

- Etxebizitza-programaren 2017ko aurrekontuan ezarritako lehen helburuak honako hau dio: «etxebizitza bat lortzeko aukera sustatzea, baliabideak lehenik eta behin etxebizitzak alokatzeko bideratuta», eta E adierazlean –finantza-egoera egokia eta egonkorra eskaintzea–, 100 milioi euroko helburu bat dago jasota Eusko Jaurlaritzaren eta EAEko kreditu-erakundearen arteko finantza-hitzarmenaren bidez finantzatzeko. Ekitaldi amaieran, helburu horren betetze-mailari buruz, sistemari 25,73 milioi euroko finantzaketa eman zaiola jaso da.
- Balantze orokorrari dagokionez, 2017an behera egin dute, nabarmen, onartu diren maileguen kopuruak (64 mailegu gutxiago) eta, batez ere, finantzaketaren zenbateko osoak. Erakundeek, krisiaren ondorioz, erosteko mailegu gutxi eman dizkiete izan zitezkeen erosleei eta sustatzaileei, eta horri zor zaio asmoa hain neurri txikian bete izana. Maileguen zenbatekoa aztertzen badugu, 133.000 euro inguruan dago etxebizitza erosteko maileguen batez bestekoa.

#### **Onartutako maileguen laburpen-taula, 2014-2017 (2018/03/01ean eguneratutako datuak)**

Tasa	2014		2015		2016		2017	
	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €
Sustapena	3	12.707	6	35.161	7	23.698	4	21.475
Birgaikuntza	197	1.478	192	1.341	186	1.447	162	1.173
Etxeb. sozialak erostea	3	160	3	130				
BOEak erostea	285	28.609	61	6.014	44	4.386	15	1.415
Etxeb. erabiliak erostea	46	4.688	25	2.417	19	1.970	10	1.121
Udaleko tasatuak erostea	7	940						
Alokairukoak erostea			1	3.740			1	542
Zuzkidura-bizitokiak								
<b>Guztira</b>	<b>541</b>	<b>48.582</b>	<b>288</b>	<b>48.803</b>	<b>256</b>	<b>31.501</b>	<b>192</b>	<b>25.726</b>



- Birgaitzeko maileguei erreparatzen badiegu, ez da ikusten aldakuntza handirik, baina, orokorrean, behera egin dute bai kopuruari bai zenbatekoari dagokienez.
- Azterketa diferentziala eginez gero, ikus dezakegu maileguen % 86,4 birgaikuntza isolaturako dela; % 13,6, aldiz, birgaikuntza integraturako. Ehuneko horiek ia-ia berberak dira zenbatekoei dagokienez: % 81,9 isolaturako eta % 18,1 integraturako.

***Etxebizitzak birgaitzeko onartutako maileguak  
(2018/03/01ean eguneratutako datuak)***

Maileguak	2014		2015		2016		2017	
	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €
Birgaikuntza isolatua	174	1.219	175	1.204	154	1.169	140	961
Birgaikuntza integratua	23	259	17	137	32	278	22	212
<b>Guztira</b>	<b>197</b>	<b>1.478</b>	<b>192</b>	<b>1.341</b>	<b>186</b>	<b>1.447</b>	<b>162</b>	<b>1.173</b>

- Diru-laguntzen ataleko emaitzei dagokienez, 2017ko datuek berretsi egiten dute diru-laguntzen % 99 birgaitzeko erabiltzen dela, kopuruari nahiz zenbatekoari dagokienez.
- Diru-laguntzen erdiak baino gehiago, % 53,7, egituran obrak egiteko erabiltzen dira; % 25,2, berriz, etxebizitzak egokitzeko.
- Etxebizitzak birgaitzeko eta eskuratzeko diru-laguntzen kopuruak gora egin du 2016an ere, 2014an hasitako etengabeko gorakadaren bidetik.

***Etxebizitzen diru-laguntzak (2018/03/01ean eguneratutako datuak)***

Diru-laguntzak	2014		2015		2016		2017	
	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €
Erosleak	4	18	194	74	87	65	79	121
Birgaikuntza	11.351	13.463	12.510	14.575	12.655	15.783	15.282	20.968
<b>Guztira</b>	<b>11.355</b>	<b>13.481</b>	<b>12.704</b>	<b>14.650</b>	<b>12.742</b>	<b>15.848</b>	<b>15.361</b>	<b>21.089</b>

Birgaikuntzarako diru-laguntzen banakatzea, obren arabera eta inbertsioen aurrekontu induzitu osoaren arabera (eurotan):

	2014	2015	2016	2017
<b>Diru-laguntza</b>	<b>13.463.117,51</b>	<b>14.575.218,37</b>	<b>15.782.901,65</b>	<b>20.967.625,44</b>
<b>Egitura</b>	7.110.463,62	7.669.325,93	8.478.219,24	9.861.900,33
<b>Akabera</b>	130.113,44	120.956,69	141.416,27	111.965,51
<b>Egokitzea</b>	6.290,91	16.128,31	0,00	0,00
<b>Moldatzea</b>	3.720.045,92	3.452.873,23	3.974.373,49	5.159.540,49
<b>Inguratzailea</b>	1.790.595,76	2.305.610,03	2.793.333,84	5.696.195,67
<b>Ordainsariak</b>	705.605,62	1.010.326,20	391.422,65	138.023,44
<b>Babespeko aurrekontua</b>	<b>226.624.312,48</b>	<b>233.487.768,49</b>	<b>266.888.691,25</b>	<b>296.960.767,08</b>





- Alokairua sustatzeko diru-laguntzen lerroan, 2017an laguntza hauek eman dira:

#### Landa-eremua

	<b>Etx. kop.</b>	<b>Udalerria</b>	<b>Entitatea</b>	<b>Diru-laguntza</b>
	2	Urizarra (ARABA)	Administrazio Batzarra	171.800
	1	Domaika (ARABA)	Administrazio Batzarra	63.420
<b>Guztira</b>	<b>3</b>			<b>235.220</b>

#### Zuzkidura-bizitokiak

	<b>Alokairuko zuzk.-biz. kop.</b>	<b>Udalerria</b>	<b>Entitatea</b>	<b>Diru-laguntza</b>
	66	Amazola Bilbo	TEA	2.640.000
<b>Guztira</b>	<b>66</b>			<b>2.640.000</b>


#### Errentamendurako laguntzak

	<b>Etx. Kop.</b>	<b>Udalerria</b>	<b>Entitatea</b>	<b>Diru-laguntza</b>	<b>Subsidioa</b>	<b>Guztira</b>
	8 BOE	ZERAIN	Zeraingo Udala	344.000,00	0,00	344.000,00
	4 libre	GASTEIZ	Julián Velasco Prieto	94.000,00	75.481,63	169.481,63
	11 BOE	LEIOA	Artirent XXI SL	143.000,00	0,00	143.000,00
	7 libre	BILBO	TEA	280.000,00	0,00	280.000,00
	5 libre	SESTAO	Sestaoko Udala	200.000,00	31.033,64	231.033,64
<b>Guztira</b>	<b>35</b>			<b>1.061.000,00</b>	<b>106.515,27</b>	<b>1.167.515,27</b>

#### **BIZIGUNE PROGRAMA.**

- 2017ko Etxebizitza Programak bere helburuen artean aipatzen du «etxebizitza bat lortzeko aukera sustatzea, baliabideak lehenik eta behin etxebizitzak alokatzeko bideratuta», eta D ildoan, partikularren etxebizitzak alokatzeko eskaintza sustatzeari buruzkoan, Bizigunen 5.200 etxebizitza sartzeko helburua zehazten du.
- 2017. urtearen bukaeran 4.639 etxebizitza eta garaje libre zituen Bizigunek babespeko alokairuan erabiltzeko, honela banatuta: Araban % 12, Bizkaian % 62 eta Gipuzkoan % 26. 2017ko abenduko datuak hartuz gero oinarri, 140 etxebizitza lortu dira ekitaldi horretan.

**Biziguneren etxebizitza kopuruaren bilakaera  
(urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak)**



- 2017an, 19,5 milioi euro izan da Alokabide SA sozietateari Bizigune programa kudeatzeko egindako transferentzien zenbatekoa.

**ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), MERKATU LIBREKO ETXEBIZITZEN ALOKAIRURAKO BITARTEKARITZA-PROGRAMA.**

- ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programaren helburua hau da: titulartasun pribatuko etxebizitzak alokairuko merkatura bideratzea, arrazoizko prezioan errentarientzat.
- Aseguru-polizen bidezko berme-sistema bat ezarri da alokairua ordaintzen ez denerako, kalterik eragiten bada hari aurre egiteko eta laguntza juridikoa emateko, etxebizitza hutsen jabeak programa honetan parte hartzera bultzatzeko asmoz.
- Jabeen eskaintako bermeen truke, Eusko Jaurlaritzak alokairuen gehieneko prezioak finkatuko ditu, etxebizitza arloan eskumena duen sailaren bidez, eta prezioak merkatu librean baino txikiagoak eta lehiakorragoak direla bermatuko du, egoera sozioekonomikoa dela-eta merkatu horretatik kanpo geratzen diren etxebizitza-eskatzailleek alokairuko etxebizitzak eskuratzeko aukera gehiago dituztela ziurtatzeko.
- Eusko Jaurlaritzak Bitartekaritza Agente Laguntzaileen Sarea sortu du, eta hark hainbat eginkizun garrantzitsu hartuko ditu bere gain aipatutako programa abiarazteko.
- Sortu zenetik eta 2017an, 18 agente laguntzailek eman dute izena, lurraldeka honela banatuta:
  - Araba: 2
  - Bizkaia: 6




- Gipuzkoa: 8
- Alokabide, hiru lurralde historikoetan ditu bulegoak
- Entitate bat, bulegoak Araban eta Bizkaian dituena

2017 ekitaldian, homologatutako agente laguntzaileen kopuruari eutsi zaio.

- Ikusi dugu etxebizitza hutsen jabeek oso harrera ona egin diotela programa honi etxebizitzak programan sartzeko. Era berean, harrera ona izan du Eusko Jaurlaritzak kontratatutako aseguruen estaldurak. 2017an 6 etxebizitza gehitu dira, eta abenduaren 31n 209 kontratu zeuden aktibo. Lortutako etxebizitzaren kopurua, guztira, 206 da.

#### ASAP





## 1.- Izenburua

**Renove Programa: Etxebizitza eta eraikinen birgaitze eraginkorra, Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko eta horietatik eratorritako lanak egiteko**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abenduaren 28koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena; horren bidez, etxebizitzak eta eraikinak era efizientean birgaitzeko Renove programaren 2017ko deialdia egin eta arautzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Proposatutako jarduketak erabilera nagusia etxebizitzarena duten eraikinetan edo familia anitzeko eraikin-multzoetan esku hartzera bideratutakoak izango dira, 1980 baino lehen eraikitakoak izan beharko dute eta hirigintza eta egituraren aldetik egokituta egon beharko dute abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak ezarritako terminoetan.

Eraikitako ondarean esku hartzeko laguntza-programa honetara bildutako proiektuak eraikinen irisgarritasun- eta bizigarritasun-baldintzak hobetzeko eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko izango dira.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

70 eskabide aurkeztu ziren eskabideak aurkezteko adierazitako epearen barruan. Etxebizitza sailburuordeak 2017ko abenduaren 29an ebatzi zuen deialdia. Ebazpenetik datu hauek atera daitezke:

## EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA:

AGINDUKOA, GUZTIRA	5.500.000,00 €
2017AN, GUZTIRA	5.303.619,87 €

20 eskabidek atzera egin dutela ulertu da, 16 ukatu dira, eta 34 eman dira, 15 Bizkaian (170 etxebizitza eta 2.242.637,61 euroko diru-laguntza) eta 19 Gipuzkoan (273 etxebizitza eta 3.060.982,29 euroko diru-laguntza). Araban ez da eman laguntzarik.



## 1.- Izenburua

**Udalentzako, toki-erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak, hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2017ko irailaren 7koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena. Honen bidez, hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko udalentzako, toki-erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak arautzen dira, eta horietarako 2017ko ekitaldirako deialdia egiten da.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2017ko irailaren 7ko Aginduaren helburua 2017 ekitaldikoko diru-laguntzak emateko deialdia egin eta arautzea da, xede hauekin: 1) irisgarritasun-planak egin eta eguneratzea, dauden hiri-inguruneak, espazio publikoak, eraikinak, garraiobideak eta informazio-sistemak pixkanaka egokitzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean eta haren garapen-arauetan aurreikusitako irisgarritasun-baldintzetara; 2) udalen eta toki erakunde txikien irisgarritasun-planetan jasotako hobekuntza-lanak egitea Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko, eta, xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuen kasuan, hobekuntza-lanak egitea; eta 3) egokitzeko ekipamendua eskuratu eta instalatzea.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Adierazitako diru-laguntzak emateko, 3.300.000 euro jarri ziren guztira. Horietatik, 300.000 euro 2017. urtekoak dira, 1.800.000 euro 2018. urtekoak, eta 1.200.000 euro 2019. urtekoak.

Aurkeztu eta onartu ziren 64 udal / toki-erakunde txiki / xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatu, 95 jarduketarekin:

- Arabako 7 udal: 2 plan eta 7 obra
- Bizkaiko 31 udal: 8 plan eta 42 obra
- Gipuzkoako 25 udal: 13 plan eta 22 obra
- Bizkaiko erakunde pribatu bat: jarduketa bat

Aurrekontu-partida nahikorik ez izateagatik, 110 jarduketa baztertu ziren.

Honekin batera doa betetze-mailari buruzko taula eta aurreko deialdiarekin konparazioa egiteko taula:



	<b>Udalak, toki-erakunde txikiak, erakunde pribatuak</b>					
	Onartutako erak. kop.	Onartutako plan kop.	€ planetarako	Onartutako obra kop.	€ obretarako	€ guztira
Araba	7	2	22.125,00	7	118.722,09	140.847,09
Bizkaia	32	8	141.075,00	43	1.801.227,07	1.942.302,07
Gipuzkoa	25	13	213.650,20	22	1.003.200,64	1.216.850,85
<b>Guztira</b>	<b>64</b>	<b>23</b>	<b>376.850,20</b>	<b>72</b>	<b>2.923.149,80</b>	<b>3.300.000,00</b>

	<b>Aurreko urtearen aldean</b>					
	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Erak.	26	7	38	32	34	25
Plan kop.	4	2	14	8	8	13
€ planetarako	37.789,91	22.125,00	173.323,44	141.075,00	91.130,56	213.650,20
Obra kop.	40	7	44	43	58	22
€ obretarako	512.263,19	118.722,09	870.792,29	1.801.227,07	1.314.700,61	1.003.200,64
€ guztira	550.053,10	550.053,10	1.044.115,73	1.044.115,73	1.405.831,17	1.405.831,17

	<b>2016. urtea</b>	<b>2017. urtea</b>
Erak.	98	64
Plan kop.	26	23
€ planetarako	302.243,91 €	376.850,21 €
Obra kop.	142	72
€ obretarako	2.697.756,09 €	2.923.149,80 €
Aurrekontu-zuzkidura deialdirako	3.000.000,00 €	3.300.000,00 €
Aurkeztutako eta onartutako gehieneko irisgarritasun-aurrekontu diruz lagungarrien batura	4.168.129,34 €	6.462.723,25 €



## 1.- Izenburua

**Birgaitze integratuko areetan edo bizitegi area degradatuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko diru-laguntzak**

## 2.- Araua

Agindua, 2007ko maiatzaren 2koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, birgaitzeko edo berritzeko eta jasotze topografikoak egiteko diru-laguntzak arautzen dituena (2007ko maiatzaren 9ko EHAA, 88. zk.).

AGINDUA, 2016ko abenduaren 28koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez agiriak idazteko eta obrak gauzatzeko laguntzetarako deialdia egiten baita Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2007ko maiatzaren 2ko Aginduan ezarritakoari jarraituz. Agindu horren bidez, Birgaitze Integratuko Areetan edo Bizitegi Area Degradatuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen da.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea honako agiri hauek idaztearen diru-laguntzak ematea da, eta agiri hauei dagozkien obrak:

## a) Alde historikoei buruzkoak:

- Alde Zaharrei buruzko Azterlan Soziourbanistikoak eta/edo Alde Zaharrak Birgaitzeko Plan Bereziak idaztea, bai eta 1/200 edo 1/500 eskalako jasotze topografikoak idaztea ere.
- Urbanizazio-elementuak –eta, hala badagokio, hiri-altzariak– kontserbatzeko, zaharberritzeko, eraberritzeko edo zabaltzeko beharrezkoak diren obrei buruzko proiektuak, betiere obra horiek Birgaitze Plan Bereziaren zehazpenetan halakotzat bildu badira eta eremuko jabeek obra horien kostua esleitzen ez bazaie urbanizazio-betebehar gisa.
- Birgaitze Integratuko Areetako urbanizazioen –bereziki, eraikin eta urbanizazioak eraitsi ondoren egin diren urbanizazioen– lehen ezarpena egiteko obra/proiektuak, betiere obra horiek berariaz halakotzat hartuta badaude Birgaitze Plan Bereziaren.
- Urbanizazioak erabat edo hein batean eraisteko obrei buruzko proiektuak, baldin eta abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren I. eranskinean jasotako xedek eta betebeharrak betetzen badituzte, birgaitzeko esku-hartzeak zehazteari dagokionez (317/2002 Dekretua, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jardun babestuei buruzkoa).



b) Bizitegi-area degradatuei buruzkoak:

- Bizitegi Area Degradatuei buruzko azterlan soziourbanistikoak.
- Birgaitze Integratuko Plan Bereziak edo Birgaitzeko edo Berritzeko Programa Estrategikoak.
- 1/200 edo 1/500 eskalako jasotze topografikoak.
- Urbanizazio-elementuak –eta, hala badagokio, hiri-altzariak– kontserbatzeko, zaharbertzeko, eraberritzeko edo zabaltzeko beharrezkoak diren obrei buruzko proiektuak, betiere obra horiek Birgaitze Plan Bereziak edo Birgaitzeko edo Berritzeko Programa Estrategikoetako zehazpenetan halakotzat bildu badira eta areako jabeen obra horien kostua esleitzen ez bazaie urbanizazio-betebehar gisa.
- Urbanizazioen –bereziki, eraikin eta urbanizazioak eraitsi ondoren egin diren urbanizazioak– lehen ezarpena egiteko obra-proiektuak, betiere obra horiek berariaz halakotzat hartuta badaude Birgaitze Plan Bereziak edo Birgaitzeko edo Berritzeko Programa Estrategikoetan.
- Urbanizazioak erabat edo hein batean eraisteko obrei buruzko proiektuak, baldin eta abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren I. eranskinean jasotako xedeak eta betebeharrak betetzen badituzte, birgaitzeko esku-hartzeak zehazteari dagokionez (317/2002 Dekretua, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jardun babestuei buruzkoa).

Laguntza horiek emateko zazpiehun mila euro (700.000) bideratuko dira guztira, eta honela banakatuko dira:

Kontzeptua/Urtea	2017	2018	2019	Guztira
Agiriak idaztea	55.000 €	275.000 €	170.000 €	500.000 €
Obrak egitea	245.000 €	925.000 €	1.330.000 €	2.500.000 €

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Birgaitze integratutako eremuetan edo bizitegi-eremu degradatuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko, 9 eskabide ukatu eta 36 diru-laguntza eman dira, 1.703.075,04 euroko zenbatekoan guztira.

Emandako 36 laguntzetatik:

\*27 dokumentuak idazteko laguntzak dira

- 7 Arabako lurraldeari dagozkio; guztira, 202.951,38 € diru-laguntzetan.
- 14 Bizkaiko lurraldeari dagozkio; guztira, 114.929,02 € diru-laguntzetan.
- 6 Gipuzkoako lurraldeari dagozkio; guztira, 94.988,86 € diru-laguntzetan.





\*9 obrak egiteko laguntzak dira

- 2 Arabako lurraldeari dagozkio; guztira, 46.057,10€ diru-laguntzetan.
- 3 Bizkaiko lurraldeari dagozkio; guztira, 803.137,14 € diru-laguntzetan.
- 4 Gipuzkoako lurraldeari dagozkio; guztira, 441.011,54 € diru-laguntzetan.



### 1.- Izenburua

**2017 ekitaldirako diru-laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren bizitegi-erakuntzaren sektoreko enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzeko, eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa sustatzeko, jasangarritasuna indartzeko eta berrikuntzari laguntzeko proiektuak bultzatzeko (2017ko Eraikal Programa)**

### 2.- Araua

Agindua, 2017ko irailaren 7koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-erakuntzaren sektoreko enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzeko eta hobetzeko, eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa sustatzeko, jasangarritasuna indartzeko eta berrikuntzari laguntzeko 2017rako diru-laguntzak arautzen dituen eta haien deialdia egiten duena (Eraikal 2017 programa).

### 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

ERAIKAL Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren ekimen bat da, obra berriak nahiz birgaitze- eta mantentze-lanetan eta Eraikinen Ikuskapen Teknikoetan kalitatearen kudeaketa bultzatzeko. Era berean, eraikinak eraistea eta birziklatzea aurreikusten duen ekimen bat da, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-erakuntzaren sektoreko enpresek barnean har dezaten eraikinaren balio-bizitza osoa, ingurumena, laneko arriskuen prebentzioa, jasangarritasunaren sustapena eta berrikuntzarako laguntza.

Aurrekontu-zuzkidura 600.000,00 eurokoa izan da guztira.

Programak lerro hauek ditu:

- I. lerroa: Berrikuntza-proiektuak edo -azterketak.
- II. lerroa: Informatikako tresnak garatzea, eta dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak egitea.
- III. lerroa: Kudeaketa-sistemak ezarri eta ziurtatzea.



4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren emaitzak:

<u>Lerroa</u>	<u>Proiektu kop.</u>	<u>Emandako diru-laguntza (€)</u>
I. lerroa	11	277.726,07
II. lerroa	11	151.946,08
III. lerroa	25	79.852,17
Guztira	47	509.524,32



## 1.- Izenburua

**Enpresentzako 2017ko diru-laguntzak, ingurumenera zuzendutako inbertsioetarako**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2017ko irailaren 12koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen deialdia, 2017ko ekitaldirako. Dekretu horrek ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzen ditu.

202/2015 DEKRETUA, urriaren 27koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituena.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da ingurumena babesteko inbertsioak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko enpresentzako diru-laguntzak ematea. Bi prozedura bereizten dira diru-laguntzen eskabideetarako. Diru-laguntzak jaso ditzaketen lerroak honako hauek dira:

- Prozedura erraztuaren barnean: ETEentzako kanpo-aholkularitza; estrategikotzat jotzen diren eta deialdiaren ekitaldian sustatu nahi diren inbertsio jakin batzuk; eta zenbateko txikiko ingurumen-inbertsioen aurreko azterlan jakin batzuk (20.000 eurotik beherako inbertsioak). ETEentzako kanpo-aholkularitzaren lerroaren baitan, EMAS, ekoetiketa, karbono-aztarnaren kalkulua eta lurzoruaren kalitatearen adierazpena sartzen dira.
- Prozedura arruntaren barnean: EBko arauetatik harago joatea ahalbidetzen duten inbertsioak (airea, ura, zarata edo hondakinak); hondakinak hirugarrenen bidez birziklatzeko diru-laguntzak; eta ingurumen-inbertsioen aurreko azterlanak egiteko diru-laguntzak.

Programa honen helburu nagusia da ingurumena hobetzera zuzendutako inbertsioak sustatzea; horregatik, prozedura arruntaren baitan, eskabideak faktore hauen arabera lehenesten dira: inbertsioak dakarren hobekuntza kuantitatibo eta kualitatiboa, berrikuntza, proiektuaren kalitatea, ETEek egindako inbertsioak, ingurunearen ezaugarriak.

2017ko Aginduan ezarritako aurrekontu-zuzkidura honela geratu zen banatuta:

<i><b>Diru-laguntzaren Lerroa</b></i>	<i><b>Aginduaren Zuzkidura</b></i>
Prozedura Arrunta	759.000 euro
Prozedura Erraztua	641.000 euro
<b>Aurrekontua, guztira</b>	<b>1.400.000 euro</b>



4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017an, guztira 83 eskabide jaso dira, eta horietatik 69 onartu egin dira. Lerroen arabera, honela banakatzen dira eskabideak:

Lerroa	Azpilerroa	Eska. Kop.	Onar. Kop.
Prozedura Arrunta:			
Prozedura arrunta	EBren arauetatik harago joateko inbertsioak	43	33
	Hondakinen birziklapen eta berrerabilera	1	1
	Ingurumen-azterlanak	0	0
	Lurren saneamendua	3	2
Prozedura arruntaren guztizko partziala		47	36
Prozedura erraztua:			
Inbertsioak	Harea eta xehetarako inbertsioak	3	3
	Paper-orezko lohiak eta zuntzak	1	1
Hirugarrenen birziklatze-inbertsioak	CTVFU informatika-sistemak	4	4
	Erabiltzen ez diren ibilgailuen deskontaminazioa hobetzeko gailuak/makinaria	11	11
	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen nahasketak bereizteko gailuak/makinaria	3	2
Azterlanak	Azterlanak	3	1
ETEentzako aholkularitza	EMAS sustatzeko elkarteak	0	0
	EMAS erregistroa	1	1
	EMAS berriztatzea	0	0
	Ekodiseinua, ekoetiketak, Karbono aztarna	9	9
	Hondakinei buruzko planak	1	1
	Lurzoruaren kalitatearen adierazpena	3	3
Prozedura erraztuaren guztizko partziala		36	33
<b>GUZTIZKOA</b>		<b>83</b>	<b>69</b>

Onuradunak 57 enpresak aurkeztutako 69 proiektu izan ziren. Proiektu horiek gauzatzearen emaitza hauxe izango da:

AIREA Emisio gutxiago:	- 49,10 t partikula/urte - 24,8 t KOL/urte - 1,5 t/urte beste gas batzuen (NH <sub>3</sub> ,...).
URA	- Kontsumoa murriztea: 7.000 m <sup>3</sup> /urte - Isuritako kutsagarriak murriztea: o 21,8 t karga organiko/urte o 4,3 t beste kutsagarri batzuk (olioak, sulfatoak)/urte



HONDAKINAK	- 184,60 t hondakin arriskutsu murriztea eta/edo birziklatzea urtean - 33.000 t hondakin ez-arriskutsu murriztea eta/edo birziklatzea urtean
LURZORUAK	- Ingurumena berreskuratzea 5.8 Ha egungo kutsatutako edo hondatutako lurzoruetan.
ETE- ENTZAKO AHOKULARIT ZA	- 2 enpresa edo produkturen karbono-aztarna kalkulatzea - Ekoetiketa 2 enpresatan ziurtatzea - Ekodiseinu-sistemak 5 enpresatan jartzea - EMAS ziurtagiria (erregistratzea edo berriztatzea) 1 enpresatan
AZTERLANAK	- Ingurumen-inbertsioen aurreko 1 azterlan



## 1.- Izenburua

**Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten Udalei, Mankomunitateei, beste Toki-erakunde batzuei, Toki Erakunde Autonomoei, Tokiko Garapen Agentziei eta Tokiko Merkataritza-sozietateei eman beharreko diru-laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2017ko uztailaren 19koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-erakunde batzuei, toki-erakunde autonomoei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituena eta diru-laguntzok emateko deialdia egiten duena.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da diru-laguntzak ematea garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Udalei, Mankomunitateei, beste Toki-erakunde batzuei, Toki Erakunde Autonomoei, Tokiko Garapen Agentziei eta Tokiko Merkataritza-sozietateei. Ekintza horiek bat etorri behar dute lerro hauekin:

- a) Lurzoru kutsatuak. Lurzoruaren kalitateari buruzko ikerlanak, prebentzioa eta lehengoratzeko egiteko lanak sustatzen dituzten ekintzak.
- b) Klima-aldaketa eta atmosfera. EAEn airearen kalitatea hobetzea sustatzen duten ekintzak, zarataren inguruko ekintzak, eta egoera arintzeko ekintzak (berotegi-efektuko gasen isurpen garbiak murrizteko ekintzak) eta egokitzeko ekintzak (klima-aldaketaren ondorioak murriztera bideratutako plangintza eta ekintzak).
- c) Natura-ondarea eta biodibertsitatea. EAeko dibertsitate biologikoari eusteko eta berau leheneratzeko edo hobetzeko ekintzak.
- d) Ekonomia zirkularra. Hondakinak ez sortzeko– batik bat jakiak alferrik ez galtzeko eta biohondakinak ez eragiteko– ekintzak.
- e) Jasangarritasunerako hezkuntza. Eskolako 21 Agenda eta Tokiko 21 Agenda koordinatzea sustatzen duten ekintzak.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ean, guztira 141 eskabide jaso dira. Lerroen arabera, honela banatzen dira eskabide horiek: Lurzoru kutsatuak: 18; Klima-aldaketa eta atmosfera: 24; Patrimonio naturala eta biodibertsitatea: 39, Economía circular: 11; eta Jasangarritasunerako hezkuntza: 49.

Aurkeztutako eskabideetatik, euskal toki-erakundeen 107 proiektuk jaso dituzte diru-laguntzak.



2017ko deialdiaren aurrekontu-zuzkidura 1.960.000,00 eurokoa izan da, eta horrela banatu da:

- Lurzoruaren kalitateari buruzko 16 ikerketa- eta berreskuratze-proiektuk 654.341,52 € jaso dituzte.
- Klima-aldaketa eta atmosferari buruzko 16 proiektuk 589.235,82 € jaso dituzte.
- Euskal Autonomia Erkidegoko kapital natural eta biodibertsitateari buruzko 20 proiektuk 423.725,31 € jaso dituzte.
- Ekonomia zirkularreko 6 proiektuk 136.698,90 €.
- Jasangarritasunerako hezkuntzari buruzko 49 proiektuk 160.000 € jaso dituzte.

### Ingurumen-emaizak

2017rako diru-laguntzen deialdiaren emaitzei dagokienez, jarduera horiek gauzatzeko epea 2019ko urriaren 31n bukatuko denez, eskura dauden datu bakarrak diruz lagundutako proiektuetarako aurreikusten den ingurumen-inpaktuari buruzkoak dira:

- Klima-aldaketa eta atmosferaren lerroko diru-laguntzak esleitu zaizkien 16 proiektuen artean, honako hauek sartzen dira: 4,4 kilometro bidegorri eraikitzea; ibilgailu elektriko edo hibridoak erostea; arazketa-sistema bat eta ibilgailu elektrikoa kargatzeko sistema bat; eta klima-aldaketari egokitzeko planak erredaktatzea eta klima-aldaketari egokitzeko neurriak ezartzea. Proiektu horien bidez, aurreikusten da urtean 505 tona CO<sub>2</sub>, 297 kg partikula eta 5.967 kg NO<sub>x</sub> murriztea eta 161 metro lineal ibaiertz berreskuratzea.
- Ondare natural eta biodibertsitatearen lerroko proiektuei dagokienez, diruz lagundutako 20 proiektuen tipologia nagusia, beste urte batez, intereseko habitatak berreskuratze eta/edo lehengoratzeko proiektuena izan da, % 45rekin. Deialdi honetan, EB edo eskualde mailan babestutako flora eta faunaren espezieak babestera eta kontserbatzera zuzendutako proiektuak azpimarratu behar dira, guztien % 20 baitira. Oraingoan, Espezie Exotiko Inbaditzaileak ezabatzeko proiektuak esleitutako proiektuen % 15 dira.
- Horri esker, EB edo eskualde mailan interesa duten habitat naturalen 300 hektarea lehengoratuko dira eta bertoko espeziez birpopulatu. Gainera, atal honetan laguntza emango da hondakinak garbitzeko eta espezie inbaditzaileak ezabatzeko lanetarako, ibaiertzeko 13 kilometro linealetan baino gehiagotan; *Robinia pseudoacacia*, *Fallopia japonica*, eta *Buddleja davidii* espezie inbaditzaileak kontrolatuko dira –beste batzuen artean- eta *Thelypteris palustris*, *Juncus acutus* eta *Ruscus aculeatus* espezieak berreskuratuko dira –beste batzuen artean-.
- Lurzoru kutsatuen lerroari dagokionez, ikertzeko eta berreskuratze azalera potentziala ebaluatu da. Onartutako 16 eskabideek ikertu edo berreskuratu beharreko





13,3 ha lur biltzen dituzte, guztira. Horietatik, 10,5 ha ikertu beharreko azalerari dagozkio eta 2,8 ha berreskuratzekoak izango dira. Alor honetan, azpimarratzekoa da aurri industrialak berreskuratzeko 3 proiekturi emandako laguntza; izan ere, jarduera horri aurreneko aldiz eman zaio diru-laguntza Ingurumen Sailburuordetzaren laguntzetarako aginduaren baitan.

- Beste alde batetik, ekonomia zirkularra sustatzeko xedez, 136.000 euroko diru-laguntza eman zaie 6 proiekturi. Horien artean, honako hauek azpimarratu daitezke: frakzio organikoaren edukiontziak erabiltzen dituzten pertsonak identifikatzeko eta biohondakinen gaikako bilketa hobetzeko sistemak jartzea. Halaber, laguntza ekonomikoa jaso dute elikagaiak alferrik galtzearen inguruan kontientziazteko proiektu batek eta materia organikoa saltokietan gaika biltzeko ekimen batek. Ekonomia zirkularreko proiektuak gauzatzearen bidez, espero da 3.655 tona biohondakin baino gehiago birziklatu ahal izatea.
- Bukatzeko, jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroak inplikatu ditu 108 euskal udal baino gehiago, 352 ikastetxe eta lehen eta bigarren hezkuntzako 184.000 ikasle baino gehiago. Horiek guztiek hobekuntzarako proposamenak egin dituzte klima-aldaketa, biodibertsitate eta kontsumo arduratsuen alorretan, besteak beste.